

Usurbilgo Udala

2021EKO OTSAILAREN 25EAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Beñat Larrañaga Urdanpilleta
Lur Etxeberria Gurrutxaga
Joxe Mari Iribar Zapirain
Luken Arkarazo Silva
Oskar Santamaria Pikabea
Itziar Basterrika Unanue
Josune Urkola Larrarte
Carlos Pérez Fraisoli
Andoni Atxega San Sebastian
Francisco José (Patxi) Suárez Pérez

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Kontuhartzailea: Xabier Olano Jauregi.

Ez dira bertaratu: Aroa Etxeburua Ugartemendia eta Mirari Azurmendi Sorazu.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2021eko otsailaren 25ean arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da Batzarburua.

Alkateak ongietorria eman dio Garazi Etxeberria San Miguel udal idazkari berriari.

1.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2021EKO URTARRILAREN 15ETIK OTSAILAREN 19RA (2021/26-2021/123).

Alkateak 2021eko urtarrilaren 15etik otsailaren 19ra bitartean (2021/26-2021/123) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.



Usurbilgo Udala

2.- 2020KO AURREKONTUAREN EXEKUZIO ESPEDIENTEAREN BERRI EMATEA.

Alkateak Xabier Olano kontuhartzaileari hitza eman dio azalpenak eman ditzan.

Xabier Olano kontuhartzaileak esan du banatu zaien informazioa urtarrilaren 12a baino lehen Foru Aldundira bidali behar izaten den informazioa dela. Batzordean esan zuten bezala, data horretatik aurrera faktura batzuk iristen joaten dira eta ondorioz datuak aldatzen joaten dira. Gaurko egoera atara duela esan du eta zehaztu du gastuak gutxi gorabehera %70 inguruko exekuzioa izango duela eta aldiz sarrerak %63 inguruko exekuzioa. Hala ere, ehuneko hauek aurrerapen bat direla zehaztu du, izan ere Foru Ogasunera likidazio definitiboa martxoaren 31rako aurkeztu beharko baitute.

Batzarkideei, 2020ko Aurrekontuaren exekuzio espedientearen berri eman zaie:

“Indarrean dagoen araudiak agintzen duenez, hiruhileko maiztasunez, Aurrekontuaren exekuzio espedientea jakinarazi behar zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari, horretarako prestatuta dagoen aplikazio informatikoa (GUNEA) erabiliz. Eta informazio berbera jakinarazi behar zaio Udalbatza Osoari ere.

Aurrekontua gauzatzeko Udal Arauaren 14. Artikuluak finkatzen duenez, talde politikoei hiru hilean behin emango zaie Aurrekontua betetzeari buruzko informazioa, programa eta kapituluaren arabera. Helburu horrekin, 2020ko Aurrekontuaren abenduaren amaiera bitarteko betetze mailari buruzko informazioa eman zaie talde politiko guztietako ordezkari, otsailaren 16ean egindako Ogasun Batzordean.


Bestalde, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 64. Artikuluak finkatzen du, “hiru hilean behin, gutxienez, toki erakundeko buruak ordu artean igarotako epealdiari dagokion finantza eta aurrekontuen arloko informazioa bidaliko dio udalbatzari, honek zehazten duen egiturarekin”. Aipatu artikuluak diona betetzeko, finantza eta aurrekontuen arloko informazio berbera emango zaio udalbatzari, hurrengo osoko bilkuran.”

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

3.- UDARREGI IKASTOLAREN ESKAERA, ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN ZERGAREN HOBARIA APLIKATZEKO.

Alkateak esan du Udarregei Ikastolak Agerialde eraikinaren atzekaldean dagoen frontoia estaltzeko egitasmoa duela eta obra horri dagokion zergaren hobaria aplikatzeko eskaera egin diola Udalari. Gaineratu du obra horrekin ekainean hasteko asmoa dutela.

Lur Etxeberria zinegotziari eman dio hitza azalpenak eman ditzan.



Usurbilgo Udala

Lur Etxeberriak adierazi du hasiera batean obra hau iaz egiteko asmoa zutela baina Covidagatik bertan behera geratu zela. Alkateak esan duen bezala, frontoiari estalki bat jarri nahi diote eta gutxi gorabehera 300.000 euroko aurrekontua duela gaineratu du.

Ikastolak obra honi dagokion ICIO zergaren %100eko hobaria eskatu duela aipatu du. Jarraian Ordenantza fiskaletan, 11. artikuluan, aipatzen dena irakurri du:

“11. Artikulua.

1.- Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 9. Artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hobariak onartu ditu Usurbilgo Udalak:

a) %90 Eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udalbatzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.”

Lur Etxeberriak jarraitu du esanez kontutan hartuta ikastolako frontoia udal titulartasunekoa dela eta herriari irekita dagoela, baloratzen dute interes berezikoak edo udal onurakoak den obra bat dela, beraz, proposatzen dutena da %90eko hobaria aplikatzea.

Josune Urkolak aipatu du Ogasun batzordean hitz egin zutela frontoi horretarako sarrera itxita egoten dela. Ikastolako orduetan ikastolak erabiliko duela bai baina beste orduetan edozeinek erabiltzeko aukera eduki behar duela uste du.


Beñat Larrañagak esan du ez dakiela zehazki ze ordutegitan egoten den irekita baina udaltzainak arduratzen direla ixteaz. Hala ere, ez dakiena da igandetan irekita egoten ote den, udaltzainak egun horretan ez baitira egoten.

Alkateak adierazi du kontsultatuko dutela udaltzainekin, baina bistan dela dio herri guztiarentzat irekita egon behar duela. Gaineratu du leku estali bat irabaziko duela herriak eta hori oso garrantzitsua dela.

Beñat Larrañagak gaineratu du soinu eta argiteri sistema integratuta eramango duela eta bertan edozein ekintza egiten denean erabilgarri egongo direla herriko frontoian bezala.

Batzarkideek, Ogasun batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“2021ko Azaroaren 24ko dataz, Udarregi Ikastolako Zuzendaria den Maria Jesus Imaz Urrutikoetxea andereak eskaria aurkeztu du udal erregistroan, Ageri Aldeko jolastokia eta frontoia estaltzeko egingo den obrarentzat Eraikuntza, instalazio eta obrei buruzko zergaren hobaria eskatuz.



Usurbilgo Udala

Aurkeztutako idatzian zehazten duenez, frontoia udal titulartasunekoa da eta erabilpen publikoa du. Gainera Udarregi Ikastolari Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuak Onura Publikoko izendapena aitortu zion, 2008ko urtarrilaren 2ko Aginduan.

Eskaera eta aplikagarria den araudia aztertu ondoren, txosten teknikoa egin du Kontu-hartzaileak, honako ondorio nagusiak azpimarratuz:

“Udarregi Ikastolako zuzendaria den Maria Jesus Imaz Urrutikoetxea anderearen eskaera eta Usurbilen indarrean dauden hobariak uztargarriak izan daitezke, neurri batean behintzat, Udal Batza Osoak hala ulertuko balu.

Horrela, teknikari honen ustez, 11. Artikuluaren a) hizkian zehazten den % 90ko hobaria Udarregi Ikastolari aplikatu dakiok, Udalbatzarrak onartuko balu Ageri Aldeko jolastokia eta frontoia estaltzeko obrak interes berezikoak edo udal onurakoak direla. Hitzez hitz jasotzen den bezala, “Izendapena Udalbatzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin”

Subjektu pasiboak, hau da Udarregi Ikastolak, eskatu duena %100ko hobaria den arren, Usurbilgo Ordenantza Fiskalak ez du aukera hori jasotzen. Bai ordea %90ko hobaria, Udalbatzarrak hala erabakiko balu.”

Udarregi ikastolaren eskaera eta Kontu-hartzailearen txostena ikusirik, Batzordeburuak proposatu du, Ageri Aldeko jolastokia eta frontoia estaltzeko obrak interes berezikoak eta udal onurakoak direla aitortzea eta Udal Batza Osoak hala erabakiko balu, % 90ko hobaria aplikatzea.

Beraz, 3 aldeko botoekin (EH Bildu + PSE) eta abstentzio batekin (EAJ-PNV), Udal Batza Osoari proposatu zaio, Ageri Aldeko jolastokia eta frontoia estaltzeko obrak interes berezikoak eta udal onurakoak direla aitortzea eta horren ondorioz Udal Batza Osoak hala erabakiko balu, % 90ko hobaria aplikatzea eraikuntza, instalazio eta obren zergaren likidazioan.”


Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Carlos Pérez Fraisoli, Andoni Atxega San Sebastian eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

4.- DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA (2020-2022): 2021EKO ERANSKINAK ONARTZEA.

Alkateak indarrean dagoen Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aurrekariak aipatu ditu. Jarraitu du esanez hasierako onarpena eman zitzaionetik 2019an, kontestu orokorra nabarmen aldatu dela, neurri handi batean Covidak sortutako pandemiak eraginda.



Usurbilgo Udala

Ondorioz, ezinbestekoa iruditu zaiela dio plan estrategiko hau aldatzea eta Covidak are ageriagoan utzi dituen behar sozial, ekonomiko eta kulturei erantzun ahal izateko dirulaguntza lerro berriak txertatzea.

2021eko aurrekontuak aurkeztu zituztenean aipatzen zuten bezala, dirulaguntzetara bideratzen duten diru kopurua igotzeko esfortzu handia egin zutela esan du. Horren isla da 4. kapituluan ia milioi bat euro gorde zituztela, iaz baino %10 gehiago.

Plan Estrategiko honetan era guztietako dirulaguntzak jasotzen direla zehaztu du. Aurrez zeuden guztiak mantendu egiten direla eta txertatzen diren lerro berriak zeintzuk diren aipatu ditu.

Garapen ekonomikoaren departamentuan 2020an Covida dela-eta tokiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektoreari zuzendutako laguntzak. 2021ari begira, aurretik zeuden bi lerroak, Hasiz Hasi eta Usurbil Zabalik, zabaltzea proposatzen dela gaineratu du.

Hirigintza sailean merkatu libreko etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntza lerroa.

Kirol sailean, daudenaz gain, lerro berri bat txertatuko dela dio, familia zaurgarrietako haurrak eskola kirolera bultzatzeko dirulaguntzak.

Kultura sailean, daudenaz gain, beste bi lerro berri proposatzen direla esan du, batetik, herriko kultur sortzaileei zuzendutako dirulaguntza lerroa eta, bestetik, Udalbiltzatik abiatutako "Geuretik sortuak" proiektuari ere udal honek ekarpena egin nahi diola esan du, kontutan hartuta proiektu honek Euskal Herria kulturalki saretzeko asmoa duela.

Gizarte Zerbitzuen sailean, lehen zeudenez gain, beste lerro bat txertatu dutela dio PSEtik egindako proposamena kontutan hartuta, desgaitasuna edo menpekotasuna duten adin txikikoen tratamenduen kostuak laguntzeko lerroa.

Era berean, beste bi lerro ere txertatuko direla jakitera eman du, batetik, Hobeki elkarteari udaletik egiten zaion ekarpena eta, bestetik, Olaso Dorrea fundazioak abiatu berria duen "Telesforo Monzon euskal herrigintza laborategia" izeneko ekimena EHUko Parte Hartuz taldearekin batera, Naziometroa izeneko egitasmoa.

Idazkariak zuzenketa bat egin du, alkateak aipatu dituen azken bi lerroei buruz adierazi du, batetik, Hobeki elkartearena gaizki jasota dagoela bai aurrekontuetan bai plan estrategikoan, bazkidetza kuota bat baita, beraz, ez du dirulaguntzen plan estrategikoan joan behar. Bestetik, Olaso Dorrearena ez dago banatutako dokumentazioan zeren aurrekontuetan beste izendapen bat dauka eta dirulaguntzetan doa.

Kontuhartzaileak esan du zuzenketa egingo dela, Udala Hobekiko kide ez zen bitartean dirulaguntza ematen zitzaiela dio eta behin kide izanda kuota ordaintzen dela zehaztu du. Hala ere, Udalarentzat gastua berdina izaten jarraitzen duela azpimarratu du

Josune Urkolak galdetu du aldaketa hori nola egin behar den, dekretu bidez?



Usurbilgo Udala

Kontuhartzaileak erantzun dio kreditu aldaketa baten bitartez ere egin daitekeela, kreditu transferentzi soila dela gaineratu du.

Batzarkideek, Antolakuntza batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp.zk.: ID.02/2021-0023

Usurbilgo Udalbatza Plenoak, 2019ko azaroaren 28an egin zuen bilkuran, Usurbilgo Udaleko 2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategikoari hasierako onespina eman zion. Jendaurrean egon zen bitartean ez zenez erreklamaziorik aurkeztu, hartutako akordioa behin betikoa bihurtu zen eta testu osoa argitaratu zen 2020ko urtarrilaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Orain, Plan Estrategikoaren eranskinak 2021eko datuekin eguneratu egin dira arloz-arlo:

- Euskara
- Garazpen ekonomikoa eta enplegua
- Gazteria
- Gizarte Zerbitzuak
- Hezkuntza
- Hirigintza
- Idazkaritza
- Ingurumena
- Kirola
- Kultura
- Nekazaritza eta abeltzaintza

Antolakuntza Batzordeak, 2021eko otsailaren 16an egindako bilkuran, gehiengoz (Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Oskar Santamaria Pikabea eta Francisco José (Patxi) Suárez Perez. Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte) egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:


ERABAKIA

LEHENENGO: 2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren 2021eko eranskinak onartzea.

BIGARRENA: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean erabaki honen berri ematea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapiain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Carlos Pérez Fraisoli, Andoni Atxega San Sebastian eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.



Usurbilgo Udala

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

5.- UDALAK HILERRIAN HILOBIEN GAINENKO ESKUBIDEAK ESLEITU AHAL IZATEKO, LOTE BERRI BATEN ESKAINTZA (11. LOTEA).

Lur Etxeberriak irizpenari buruzko azalpenak eman ditu, aurrekariak, ezaugarriak eta prozedura aipatuz.

Josune Urkolak zalantza bat duela esan du, Lur-ek 11. lotea aterako dela aipatu duela eta galdetzen du ea orain aterako diren gorpuzkinentzako diren.

Lur Etxeberriak erantzun dio ezetz, deialdi publikoa egiten dela eta edozeinek egin dezakeela eskaera.

Gainera, orain Udalak 48 nitxo hustu egingo dituela esan du, horietatik familiarteko batzuek esango dutela dio gorpuzkinak nahi dituztela, batzuek eraman egingo dituzte eta beste batzuek leku bat nahiko dute errautsak bertan uzteko. Aipatzen dituen 48 nitxo hauek publikoak direnez 10 urtetara hustu egin behar direla esan du. Orain, familiartekoek nahi badute, 50 urtetarako leku bat izateko aukera izango dute emakida honen bitartez.

Batzarkideek, Zerbitzuak eta Mantenua batzorde informatzaileko irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. zk.: HZ.06/2021-0042

Aurrekoak

1.- Usurbilgo Udalak hilerrri berriaren Erregimen eta Funtzionamendua arautzen duen Ordenantza Nagusia 2000ko irailaren 26an egindako bilkuran behin betikoz onartu zuen. Araudi horrek hainbat aldaketa jasan ditu, azkenengoz 2018an Usurbilgo Udalbatza Plenoak, 2018ko martxoaren 27an egindako ohiko bilkuran, Usurbilgo hilerrriaren erregimen eta funtzionamendurako araudia behin betikoz onartzea erabaki zuen.(GAO 2018/04/12)

2.- Beste aldetik, lotez lote hilerrriko panteoi edo hilobiak erabiltzeko eskubideak esleitzen joan da Udala dagokion espedientea izapidetu ostean.

Orain arte 10 lote eskaini dira.

Oraingoa, 11. lotea

Demanda berriak izan dira eta Zerbitzuak eta Mantenua Batzordeak 11. lotea ateratzea erabaki du. Oraingo lote honetan, eskaintzen diren hilobiak honako hauek dira:

- Sahatsa kalea, 5, eskuina, 3 (hilobi 1)
- Makala kalea, 2, ezkerre, 3 (hilobi 1)



Usurbilgo Udala

- Altzifrea kalea, 5, eskuina, 3 (hilobi 1)
- Makala kalea, 4 (6 hilobiko panteoi osoa)
- Makala kalea, 6 (6 hilobiko panteoi osoa)
- Makala kalea, 8 (6 hilobiko panteoi osoa)
- Makala kalea, 1 (6 hilobiko panteoi osoa)

Prozedura

Emakidak ofizioz edo partikularren eskariaz jar daitezke martxan. Kasu honetan ofizioz egiten da baina hilobiak eskuratzeko dagoen demanda kontutan hartuz.

Hilobiak, **zeharkako kudeaketa erregimenean** eta **kontzesio bidez esleitu nahi dira**. Beste aldetik **jardunbide irekia** aukeratu da eta kontratuaren ezaugarriak kontutan izanik, esleipena **zozketa** bidez egingo da.

Horretarako hilobien eskubideak esleitzeko bete beharreko Lege, Ekonomi eta Administrazio Baldintzen Orriak prestatu dira. Egingo den jardunbidearen ondoren esleipen-hartzaile gertatzen diren lagunei eraikitako hilobien gaineko eskubideak emateko modua arautzen da baldintza orriotan.

Baldintza horietan xedatutakoaren arabera, emakidak gehienez 50 urte iraungo du, esleipena formalizatu eta dagokion kanona ordaintzen denean hasten delarik hilobien erabilera. Udalak hala erabaki zuelako onartutako Ordenantzari.

Hilobiek erabilera pribatua izango dute baina Jabetza eskubidea kasu guztietan salbu gelditzen da, herri jabetzako ondasunak direlako.


Emakidan emango den hilobi bakoitzaren prezioa **2.661,00 €**-koa da, (6 hilobiko panteoi osoak **15.966,00 €**-ko prezioa du), Udal honek onarturiko 2021eko Ordenantza Fiskalekin bat etorritik.

Edozein kasutan, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legean xedaturikoa jarraituz eta azaroaren 3ko 33/2003 Administrazio Publikoen Patrimonioaren Legeko 93. artikulua eta ondorengoetan jasotakoaren arabera esleituko da emakida.

Atal horretako 93. artikuluan, honela xedatzen da:

- 1. El otorgamiento de concesiones sobre bienes de dominio público se efectuará en régimen de concurrencia. No obstante, podrá acordarse el otorgamiento directo en los supuestos previstos en el artículo 137.4 de esta Ley, cuando se den circunstancias excepcionales, debidamente justificadas, o en otros supuestos establecidos en las leyes.*
- 2. Cualquiera que haya sido el procedimiento seguido para la adjudicación, una vez otorgada la concesión deberá procederse a su formalización en documento administrativo.(...)*
- 3. Las concesiones se otorgarán por tiempo determinado. Su plazo máximo de duración no podrá exceder de 75 años, salvo que se establezca otro menor en las normas especiales que sean de aplicación. (...)*

Araudi aplikagarria



Usurbilgo Udala

- Usurbilgo hilerriaren erregimen eta funtzionamendurako araudia
- Hilerriko hilobien gaineko eskubideak esleitzeko bete beharreko Lege, Ekonomi eta Administrazio Baldintzen Orri bereziak. Jardunbide hau arautuko dutenak.
- Azaroaren 3ko 33/2003 Administrazio Publikoen Patrimonioaren Legea (93. artikulua eta jarraipenekoak).
- Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legea.
- Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea eta Erregimen Lokalari dagokionez, indarreko ebazpenen Testu Bateratua onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bateginaren aurka ez doan heinean.
- 1.955eko ekainaren 17ko Toki Korporazioetako Zerbitzuen Erregelamenduaren 114tik 137rainoko atalak, Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bateginaren aurka ez doan heinean.
- Izaera osagarritz, Zuzenbide Administratiboko gainontzeko arauak eta, hauek ezean, *Zuzenbide Pribatukoak* izango dira indarrekoak.
- Ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua, Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudia.

Beraz, guzti hori ikusirik, Zerbitzuak eta Mantenua Batzordeak 2021eko otsailaren 17an egindako bileran aho batez, Lur Etxeberria, Joxe Mari Iribar, Carlos Perez eta Patxi Suarezen aldeko botoekin, egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA


LEHENA: Hilerriko hilobien [Sahatsa kalea, 5, eskuina, 3 (hilobi 1), Makala kalea, 2, ezkerria, 3 (hilobi 1), Altzifrea kalea, 5, eskuina, 3 (hilobi 1), Makala kalea, 4 (6 hilobiko panteoi osoa), Makala kalea, 6 (6 hilobiko panteoi osoa), Makala kalea, 8 (6 hilobiko panteoi osoa) eta Makala kalea, 1 (6 hilobiko panteoi osoa)] **esleipenerako eta kontratazio-espeditentea izapidetzeko** Usurbilgo Udaleko organoak duen ahalmena onartzea eta beregain hartzea, zeharkako kudeaketa erregimenean, emakida administratiboaren jardunbidea martxan jarriaz.

BIGARREN: Aipatutako hilobien eskubideak emakida administratiboaren bidez esleitzeko jardunbidea arautuko duten *Klausula Juridiko, Ekonomiko eta Administrazio Bereziak* onartzea.

HIRUGARREN: Litzitaziorako espeditentea irekitzea eta eskabideak aurkezteko deialdia egitea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Gipuzkoan zabalpen gehien duten bi egunkarietan iragarkiak argitaratuz. Lehiaketan parte hartzeko eskabideak, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeita hamar egun iragan baino lehen aurkeztu beharko direlarik.

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea,



Usurbilgo Udala

Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Carlos Pérez Fraisoli, Andoni Atxega San Sebastian eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

6.- USURBILGO UDALAREN TITULARTASUNEN HAINBAT UR-APROBETXAMENDU AMAITUTZAT EMATEA.

Josemari Iribar-ek irizpenari buruzko azalpenak eman ditu. Irizpenean jasota dauden moduan, aurrekariak aipatu ditu.

Jarraian, udalaren titulartasuneko zortzi ur-aprobetxamenduri uko egitea proposatzen dela esan du.

Josune Urkolak galdetu du ea udalak noizbait erabili dituen.

Josemari Iribar-ek erantzun dio baietz, garai batean erabilitakoak direla.

Gaineratu dute Uraren Euskal Agentziak berak eskatu ziola Udalari Plenoak hartu zezala uko egiteko erabakia.

Batzarkideek, Nekazaritza eta Ingurumena batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: HZ.06/2018-0064

AURREKARIAK

2019ko martxoaren 28an, Uraren Euskal Agentziak, udalaren titulartasuneko edo udalak erabili bai baina erregularizatuta ez dituen aprobetxamenduak araupetzearen inguruko jakinarazpena igorri zuen. Bertan besteak beste honela zioen hitzez hitz:

“(…) EAEko Barne Arroetan jabari publiko hidraulikoko ur-aprobetxamenduetatik ateratako ur-bolumenak kontrolatzeko sistemak arautzen dituen 2017ko apirilaren 24ko Agindua betez, Udalak proposamen bat aurkeztu beharko du, gorago azaldutako aprobetxamendu bakoitzerako

(…)


Udalak dagoeneko ez badu ustiatzen gorago azaldutako aprobetxamenduetako bat, eskubideari uko egitea eskatu beharko dio Agentziari.

(…)

Agentziak daukan informazioaren arabera, behean azaltzen diren aprobetxamenduak gaur egun ez dira erabiltzen, eta harguneetatik ez da urik ateratzen

(…)

Beraz, eskubidea azkentzeko espedienteak hasiko dira, gorago azaldutako aprobetxamenduak ez direlako hiru urtetik gorako epean ustiatu, titularrari egotzi behar zaizkion arrazoiak direla medio.



Usurbilgo Udala

(...)"

Uraren Euskal Agentziak urkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, ingurumen eta nekazaritza teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, 2019ko maiatzaren 30ean emandako txostenean, besteak beste, hainbat ur aprobetxamenduri uko egitea proposatu zuen:

Aprobetxamendua	Ibai/Erreka	Egoera
A-G-2011-5046 (AT-1)	AT-1	Ez du erabiltzen
A-G-2011-5045 (AT-3)	AT-3	Ez du erabiltzen
A-G-2011-4106 (AR-3)	AR-3	Ez du erabiltzen
A-G-2011-4107 (AR-2)	AR-2	Ez du erabiltzen
A-G-2011-4108 (AR-1)	AR-1	Ez du erabiltzen
A-G-2011-0038 (Egioleta)		Ez du erabiltzen
A-G-2011-0028 (Artikula, Aintzi-Berri)	AT-2	Ez du erabiltzen
A-G-2011-1535 (Ezioleta)	AR-4 ¿?	Ez du erabiltzen

Eta halaxe jakinarazi zitzaion Uraren Euskal Agentziari 2019ko uztailaren 8an.

UR EMAKIDAK IRAUNGITZEKO ESPEDIENTEAK


Udalaren proposamena kontutan izanik, Uraren Euskal Agentziak udalaren titulartasuneko zortzi ur emakida iraungitzeko espedienteak jarri zituen martxan.

1 EX-G-2020-0009 (A-G-2011-0028)	Titularra: Usurbilgo Udala Ibaia/Erreka: Artikula eta Aintzi-Berri iturburuak Udalerrria (LH): Donostia (Gipuzkoa) Erabilera: Herritarrak hornitzea Batez besteko emari baliokidea: 1 l/s Emakida-eguna: 1987/01/26 Erregistro z.k.: A 59-A
2 EX-G-2020-0010 (A-G-2011-5046)	Titularra: Usurbilgo Udala Ibaia/Erreka: Izengabeko iturburua Koordenatua UTM (ETRS89): X= 574.920 Y= 4.793.341 Lekua: Aginaga Hidrologi unitatea: Oria Udalerrria (LH): Usurbil Erabilera: Hornidura, erabilera industrial Emaria/Gehienezko bolumena urtean: 15.768 m³
3 EX-G-2020-0011 (A-G-2011-5045)	Titularra: Usurbilgo Udala Ibaia/Erreka: AT-3 iturburua (Arrate 3) Koordenatua UTM (ETRS89): X= 575.035 Y= 4.793.091



Usurbilgo Udala

	<p>Lekua: Aginaga Udalerria (LH): Usurbil (Gipuzkoa) Erabilera: Herri-Hornidura Emaria: 0,6 l/s (18992 m³/urte) Emakida-eguna: 1993/05/24 Erregistro z.k.: 4159 C</p>
<p>4 EX-G-2020-0012 (A-G-2011-4106)</p>	<p>Titularra: Usurbilgo Udala Ibaia/Erreka: AR-3 Koordenatua UTM (ETRS89): X= 575.520 Y= 4.794.121 Lekua: Igeldo Udalerria (LH): Usurbil (Gipuzkoa) Erabilera: Herri-Hornidura Emaria: 0,25 l/s (7884 m³/urte) Emakida-eguna: 1993/05/24 Erregistro z.k.: 2470 C</p>
<p>5 EX-G-2020-0013 (A-G-2011-4107)</p>	<p>Titularra: Usurbilgo Udala Ibaia/Erreka: AR-2 iturburua (Artikula 2) Koordenatua UTM (ETRS89): X= 576.125 Y= 4.794.475 Lekua: Igeldo Udalerria (LH): Donostia (Gipuzkoa) Erabilera: Herri-Hornidura Emaria: 0,25 l/s Emakida-eguna: 1993/05/24</p>
<p>6 EX-G-2020-0014 (A-G-2011-4108)</p>	<p>Titularra: Usurbilgo Udala Ibaia/Erreka: AR-1 iturburua (Artikula 1) Koordenatua UTM (ETRS89): X= 576.345 Y= 4.794.521 Lekua: Igeldo Udalerria (LH): Donostia (Gipuzkoa) Erabilera: Herri-Hornidura Emaria: 0,6 l/s (18922 m³/urte) Emakida-eguna: 1993/05/24 Erregistro z.k.: 2472 C</p>
<p>7 EX-G-2020-0015 (A-G-2011-0038)</p>	<p>Titularra: Usurbilgo Udala Ibaia/korrontea: Egiolatz iturburua (koordinaturik gabe) Donostia (Gipuzkoa) Hidrologi unitatea: Urumea Udalerria (LH): Donostia Erabilera: Etxeko erabilera Batez besteko emari baliokidea: 1 l/s Ebazpenaren data: iparraldeko Konfederazio Hidrografikoaren Ebazpena, 1989/03/04koa Emakida epea: 50 urte, 1986/01/01etik aurrera Erabilera: hiri-hornidura Inskripzio z.k.: Oviedo Uren Erregistroa 381, a atala</p>



Usurbilgo Udala

8 EX-G-2020-0024 (A-G-2011-1535)	Titularra: Usurbilgo Udala Ibaia/Erreka: Ezioleta iturburua Udalerria (LH): Donostia Erabilera: Biztanleriaren hornikuntza Berehalako gehieneko emaria: 0,51 l/s Ebazpenaren data: uren komisariaren 1978/07/20ko Ebazpena Kontzesio epea: 99 urte Inskripzio zk.: Madrilgo Uren Erregistro Orokorra 85025
--	---

Geroztik ordea, Uraren Euskal Agentziak, aipatutako ur-aprobetxamenduei uko egiteko erabakia plenoan hartzeko eskatu digu.

Guzti hau ikusirik, Nekazaritza eta Ingurumena Batzordeak, 2021eko otsailaren 17an egindako bilkuran, Joxe Mari Iribar, Oskar Santamaria, Carlos Perez eta Patxi Suárezen aldeko botoekin, ahol batez, egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du:

ERABAKIA

LEHENENGOA: Usurbilgo Udalaren titulartasuneko ondoko ur-aprobetxamenduei UKO egitea:

- A-G-2011-0028
- A-G-2011-5046
- A-G-2011-5045
- A-G-2011-4106
- A-G-2011-4107
- A-G-2011-4108
- A-G-2011-0038
- A-G-2011-1535


BIGARRENA: Erabaki honen berri Uraren Euskal Agentziari ematea aipatutako ur-aprobetxamenduen amaitzea erabaki dezan.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Carlos Pérez Fraisoli, Andoni Atxega San Sebastian eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

7.- USURBILGO HERRI-BIDEEN INBENTARIOKO 03. EGIOLETA HERRI-BIDETIK 132,43 M²-KO LUR ZATIA DESAFEKTATZEA ETA JON ARGOTE BENGOTXEA JAUNAREN JABETZAKO 155,23 M²-KO BESTE LUR ZATI BATENGATIK PERMUTATZEA, HERRI-BIDEA LEKUZ ALDATZEKO.



Usurbilgo Udala

Alkateak irizpenari buruzko azalpenak eman ditu eta gaiaren aurrekariak aipatu ditu, irizpenean jasotzen diren moduan.

Hemen proposatzen dena da Egiluzeaundi baserriaren aurretik pasatzen den herri-bide zatia lekuz aldatzea. Permuta egin ahal izateko, lehenengo Udalarena den jabari publikoan dagoen lur-zatia desafektatu egin behar dela esan du.

Espedientean udal teknikarien aldeko txostenak jasotzen direla gaineratu du.

Batzarkideek, Nekazaritza eta Ingurumena batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: HZ.06/2019-0483

AURREKARIAK

- 2014ko urriaren 28an, Plenoak, Usurbilgo Herri-bideen inbentarioa (2014ko iraila) eguneratzea onartzea erabaki zuen. Erabakiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 219. zenbakian argitaratu zen 2014ko azararoaren 17an.

Geroztik indarrean dagoen Usurbilgo Herri-bideen inbentarioan 03. Egioleta bidea izenarekin honako herri-bidea jasotzen da:

03. EGIOLETA BIDEA


HASIERA: Usurbil eta Igeldoren arteko mugan.

BUKAERA: Usurbilgo herrigunean.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Egioleta, Arratzainberri, Egiluzeaundi eta Ugartetxeberri baserriak.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALER		EGOER A
		A	ZORUA	
IGELDOKO MUGA - AUTOPISTA	633 m.	3,0 m.	Asfaltoa	Ona
AUTOPISTA - ARRATZAIN	446 m.	3,2 m.	Hormigoia	Ona
ARRATZAINBERRI	-	1,3 - 1,5		
EGILUZEAUNDI	357 m.	m.	Lurra	Ona
EGILUZE - UGARTETXEBERRI	26 m.	3,0 m.	Hormigoia	Ona
		1,4 - 1,8		
	781 m.	m.	Lurra	Ona
	807 m.	2,5 m.	Lurra	Ona
UGARTETXEBERRI	-			
HERRIGUNEA	398 m.	3,0 m.	Hormigoia	Ona
+ 03.1 ADARRA: EGIOLETATXIKI	109 m.	1,5 m.	Lurra	Ona
+ 03.2 ADARRA: URTETA	463 m.	3,0 m.	Hormigoia	Ona
+ 03.4 ADARRA: EGILUZETXIKI	874 m.	4,0 m.	Hormigoia	Ona



Usurbilgo Udala

+ 03.5 ADARRA: ALSUA	52 m.	1,7 m.	Lurra	Ona
	192 m.	2,0 m.	Legarra	Ona
	190 m.	2,5 m.	Hormigoia	Ona

LUZERA: 5.818 m.

EGOERA: Orokorrean ona, bi zati izan ezik: Arratzainberri eta Egiluzeaurdi artean bata landaretzaren ondorioz zikintzen hasia dagoelako, eta Egiluzeaurdi eta Ugartetxeberri artean bestea bidea sasitza medio erdi itxia aurkitzen delako.

Bide-adarrak ondo daude, 03.3 Arratzainerako bide-adarra izan ezik. Utzia dago zati batean ordezeko bide hobeak daudelako.


ERABILERA: Baserri eta lursailletara sartzeko erabiltzen da.

- 2018ko urriaren 9an, Tokiko Gobernu Batzarrak, JON ARGOTE BENGOTXEA jaunari, Kalezarko Egiluzeaurdi baserria (Kalezar 78) eraberritzeko udal baimena ematea erabaki zuen.




- Herri-bideen inbentarioan 03. *Egioleta bidea*, Egiluzeaurdi baserriaren aurretik pasatzen da.

- Baserriaren eraberritze lanak aprobetxatuz, JON ARGOTE BENGOTXEA jaunak, Egiluzeaurdi baserri aurrean, herri bidea lekuz mugitzeko eskaera egin zuen. Etxearen inguruneari segurtasuna emango dion itxitura bat egin ahal izateko eta bide batez atari aurretik, ahal den neurrian urruntzeko.



Usurbilgo Udala

Herri-bidea lekuz aldatzeko proposamen zehatza ere aurkeztu zuen. Egun baserriaren aurrean herri-bideak hartzen duen azalera, 132,43 m², libre utzi, eta honen ordeztu herri-bidea lekualdatu eta bide berria (155,23 m²) udalari lagako lioke. Trukaketa.




- Gaia aztertu ostean, ingurumen eta nekazaritza udal teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, 2020ko uztailaren 1ean permuta burutzeko ALDEKO txostena eman zuen, interes publikoa justifikatuz.
- Udal idazkariak, Irantzu Arrizabalaga Gainza andreak, burutu nahi den lur trukaketa aztertu eta ondoko txostena eman zuen 2020ko uztailaren 15ean:

LEGE-TXOSTENA

GAIA: Udal jabetzako lursailen permuta
Espedientea: HZ.06/2019-0483

1.- AURREKARIAK

- 2014ko urriaren 28an, Plenoak, Usurbilgo Herri-bideen inbentarioa (2014ko iraila) eguneratzea onartzea erabaki zuen. Erabakiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 219. zenbakian argitaratu zen 2014ko azararoaren 17an.



Usurbilgo Udala

Geroztik indarrean dagoen Usurbilgo Herri-bideen inbentarioan 03. Egioleta bidea izenarekin honako herri-bidea jasotzen da:

03. EGIOLETA BIDEA

HASIERA: Usurbil eta Igeldoren arteko mugan.

BUKAERA: Usurbilgo herrigunean.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Egioleta, Arratzainberri, Egiluzeandi eta Ugartetxeberri baserriak.


BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZE RA	ZABALE RA	ZORUA	EGOE RA
IGELDOKO MUGA -				
AUTOPISTA	633 m.	3,0 m.	Asfaltoa	Ona
AUTOPISTA - ARRATZAIN			Hormigoi	
	446 m.	3,2 m.	a	Ona
ARRATZAINBERRI -		1,3 - 1,5		
EGILUZEANDI	357 m.	m.	Lurra	Ona
EGILUZE -			Hormigoi	
UGARTETXEBERRI	26 m.	3.0 m.	a	Ona
		1,4 - 1,8		
	781 m.	m.	Lurra	Ona
	807 m.	2,5 m.	Lurra	Ona
UGARTETXEBERRI -			Hormigoi	
HERRIGUNEA	398 m.	3,0 m.	a	Ona
+ 03.1 ADARRA:				
EGIOLETATXIKI	109 m.	1,5 m.	Lurra	Ona
+ 03.2 ADARRA: URTETA			Hormigoi	
	463 m.	3,0 m.	a	Ona
+ 03.4 ADARRA:			Hormigoi	
EGILUZETXIKI	874 m.	4,0 m.	a	Ona
+ 03.5 ADARRA: ALSUA	52 m.	1,7 m.	Lurra	Ona
	192 m.	2,0 m.	Legarra	Ona
			Hormigoi	
	190 m.	2,5 m.	a	Ona

LUZERA: 5.818 m.

EGOERA: Orokorrean ona, bi zati izan ezik: Arratzainberri eta Egiluzeandi artean bata landaretzaren ondorioz zikintzen hasia dagoelako, eta Egiluzeandi eta Ugartetxeberri artean bestea bidea sasitza medio erdi itxia aurkitzen delako. Bide-adarrak ondo daude, 03.3 Arratzainerako bide-adarra izan ezik. Utzia dago zati batean ordezeko bide hobeak daudelako.

ERABILERA: Baserri eta lursailletara sartzeko erabiltzen da.



Usurbilgo Udala

- 2018ko urriaren 9an, Tokiko Gobernu Batzarrak, JON ARGOTE BENGOTXEA jaunari, Kalezarko Egiluzeaundi baserria (Kalezar 78) eraberritzeko udal baimena ematea erabaki zuen.
- Herri-bideen inbentarioan 03. *Egioleta bidea*, Egiluzeaundi baserriaren aurretik pasatzen da.




- Baserriaren eraberritze lanak aprobetxatuz, JON ARGOTE BENGOTXEA jaunak, Egiluzeaundi baserri aurrean, herri bidea lekuz mugitzeko eskaera egin du. Etxearen inguruneari segurtasuna emango dion itxitura bat egin ahal izateko eta bide batez atari aurretik, ahal den neurrian urruntzeko.

Herri-bidea lekuz aldatzeko proposamen zehatza ere aurkeztu du. Egun baserriaren aurrean herri-bideak hartzen duen azalera, 132,43 m², libre utzi, eta honen ordean herri-bidea lekualdatu eta bide berria (155,23 m²) udalari lagako lioke. Trukaketa

Lursailen permuta eta trukaketa burutzeko, ezer baino lehen, herri-bideari dagozkion jabari publikoko 132,43 m²-ko azalera erabilera publikotik desafektatu behar, ondoren lursailen permuta gauzatzeko.

- Gaia aztertu ostean, ingurumen eta nekazaritza udal teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, 2020ko uztailaren 1ean permuta burutzeko ALDEKO txostena eman du, interes publikoa justifikatuz.



2.- GAIAREN AZTERKETA



Usurbilgo Udala

Udal jabetzako aipaturiko lurzatiak, jabari publikoko ondasun izaera du. Halaber, erabilera publikoari atxikitako ondasun bat izango litzateke aurrekarietan aipatu moduan.

Toki entitateen ondasunen gaineko erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege-dekretuak, honako hau xedatzen du 5.art.n: *“Los bienes comunales y demás bienes de dominio público son inalienables, inembargables e imprescriptibles y no están sujetos a tributo alguno”*. Era berean, toki-entitateen araubide juridikoa erregulatzen duen apirilaren 2ko 7/1985 legeak berdina xedatzen du bere 80.art.n. Bestetik, lege bereko hurrengo artikulua, honako hau gaineratzen du: *“la alteración de la calificación jurídica de los bienes de las entidades locales requiere expediente en el que se acrediten su oportunidad y legalidad”*.

Halaber, antzeko terminoak erabiltzen ditu azaroaren 3ko 33/2003 Legeak, Herri administrazioen patrimonioari buruzkoak. Honela dio, bere 30.art.n: *Los bienes y derechos de dominio público son inalienables, imprescriptibles y no están sujetos a tributo alguno*.


Aipaturiko lege-xedapenak kontutan hartuz, jabari publikoko ondasunak ezin dira besterenganatu, beren kalifikazioa aldatzen ez den bitartean behintzat. Beraz, ondasun honen **desafekzioa** eman beharko litzateke, eta **jabari publikoko ondasuna patrimonial bihurtu**.

Bestalde, jabari publiko ondasunen desafekzioa edo izaera juridikoa aldatzeko eman beharreko pausuak Toki entitateen ondasunen gaineko erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege-dekretuak zehazten ditu bere 8. artikuluan: *“1. La alteración de la calificación jurídica de los bienes de las entidades locales requiere expediente en el que se acrediten su oportunidad y legalidad” eta “2. El expediente deberá ser resuelto, previa información pública durante un mes, por la corporación local respectiva, mediante acuerdo adoptado con el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de miembros de la misma (zehaztasun hau apirilaren 2ko 7/85 legean ere aipatzen da, 47.art.n)*. Bestetik, artikulua bereko 3. atalak honako hau gaineratzen du: *“En cualquier caso, la incorporación al patrimonio de la entidad local de los bienes desafectados, incluso cuando procedan de deslinde de dominio público, no se entenderá efectuada hasta la recepción formal por el órgano competente de la corporación de los bienes de que se trate, y en tanto la misma no tenga lugar seguirán teniendo aquellos el carácter de dominio público*.

Beraz, aipaturiko permuta egin ahal izateko, lehenik eta behin, ondasun honen desafekzioa eman behar da, legedian ezarritako prozedura betez. Bestek beste, kasu honetan, 132,43 m²-ko lursaila desafektatu eta ondoren trukatzeko egokitasuna eta legezkotasuna justifikatu behar dira, horrela dio hitzez hitz ingurumen eta nekazaritza udal teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, bere txostenean:

“(…) Ikusirik.

- Erabilera publikoa ez dela kaltetzen aldaketarekin eta hobetu ere egiten dela, bidea etxe ataritik urrunduz.



Usurbilgo Udala

- Berritu den Egiluze Haundi baserriaren etxe ataria egokiago suertatzen dela.

Egiluze Haundi baserri aurrean, 132,43 m²-ko herri bidea desafektatu eta 155,23-m²ko herri bide berriarengatik permutatzeko ALDEKO txostena igortzea proposatzen dut.
Hurrengo baldintza pean:

- Itxiturarik egingo bada, landare hesi bidezkoa izan beharko du, gehienez ere 1,3 m-ko altuerarekin eta herri bidearen ertzetik 1,5 m-tara. Hesia jartzeko baimena eskatu beharko delarik.

Era berean, **behin desafekzioa eta permuta gauzatutakoan, interesatuak egin beharreko obra egiteko ALDEKO txostena** igortzea proposatzen dut 5.458 €.ko aurrekontuarekin. (baserriaren obra amaierako ziurtagiriekin batera aurkeztuko dira, herri bideko obra amaierako ziurtagiri guztiak). (...)

Behin desafekzioa bideratuta, honako hau azpimarratu beharrean gara:

Azaroaren 14ko 3/2011 Errege-dekretu legegileak, zeinak Herri administrazioen kontratuen legearen Testu Bategina onartzen duen, honako hau xedatzen du 5.2.art.n: *“Los restantes contratos del sector público se calificarán según las normas de derecho administrativo o de derecho privado que les sean de aplicación.”*

Bestalde, horrela xedatzen du lege bereko 4.1.p) atalak: *“1. Están excluidos del ámbito de la presente Ley los siguientes negocios y relaciones jurídicas: p) Los contratos de compraventa, donación, permuta, arrendamiento y demás negocios jurídicos análogos sobre bienes inmuebles, valores negociables y propiedades incorpóreas, a no ser que recaigan sobre programas de ordenador y deban ser calificados como contratos de suministro o servicios, que tendrán siempre el carácter de contratos privados y se regirán por la legislación patrimonial(...).”* Eta artikuluko bereko 2. atalak ondorengo xedatzen du hitzez hitz: *“2. Los contratos, negocios y relaciones jurídicas enumerados en el apartado anterior se regularán por sus normas especiales, aplicándose los principios de esta Ley para resolver las dudas y lagunas que pudieran presentarse”.*

Azkenik, izaera pribatuko kontratuen araubide juridikoari buruz, honako hau xedatzen du 20.2 art.k: *“2. Los contratos privados se regirán, en cuanto a su preparación y adjudicación, en defecto de normas específicas, por la presente ley y sus disposiciones de desarrollo, aplicándose supletoriamente las restantes normas de derecho administrativo o, en su caso, las normas de derecho privado, según corresponda por razón del sujeto o entidad contratante. En cuanto a sus efectos y extinción, estos contratos se regirán por el derecho privado”.*

Beraz, aurreko artikuluek Toki entitateen ondasunen gaineko erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege-dekretura garamatza berriz.

Zehazki, aipatu erregelamenduak ondasun patrimonialak besterenganatzeko prozedura orokor bezala, enkantea ezartzen du. Hala ere, honakoa



Usurbilgo Udala

azpimarratzen du 112.2. artikulua: *“No será necesaria la subasta en los casos de enajenación mediante permuta con otros bienes de carácter inmobiliario, previo expediente que acredite la necesidad de efectuarla y que la diferencia del valor entre los bienes que se trate de permutar no sea superior al 40% del que lo tenga mayor”.*

Beraz, aipatu baldintzak betetzen badira, ez da beharrezkoa enkantea erabiltzea, permuta erabiltzea posible delarik.

Erregelamendu bereko 113. eta hurrengo artikuluetan aipaturikoa ere kontutan hartu behar da: *“Antes de iniciarse los trámites conducentes a la enajenación del inmueble se procederá a depurar la situación física y jurídica del mismo, practicándose su deslinde si fuese necesario, e inscribiéndose en el Registro de la Propiedad si no lo estuviesen”.*

Beraz, lurzatiaren egoera fisikoa depuratu beharko da permuta egin baino lehen. Bestalde, jabetza errejistroan inskribaturik egon beharko du lursailak.

Kasu honetan ere, bai Udalaren lursaila eta baita ere beste interesatuaren lurzatiak aldeztatik segregatu beharko dira, azken kasu honetan, udalaren segregazio baimena eskatu eta lortu beharko delarik.

Halaber, ondasunen erroldako ziurtagiri bat beharko da, non ziurtatuko den ondasunak, behin desafekzioa eman ondoren, patrimonial izaera duela.


114.art: *“En cualquier supuesto, las enajenaciones de bienes cuyo valor exceda del 20% de los recursos ordinarios del presupuesto deberán ser acordadas con el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación”.*

118.art: *“Será requisito previo a toda venta o permuta de bienes patrimoniales la valoración técnica de los mismos que acredite de modo fehaciente su justiprecio”.*

Artikulu honek agindutakoa betetze aldera, ondasunen balorazio teknikoa egin beharko da, toki entitateen ondasunen erregelamenduko 112.2 art.k ezarritako baldintzak betetzen direla ziurtatze aldera.

3.- IZAPIDETZA

- Toki Entitateen Ondasunen Erregelamenduko 8.art-k xedatutakoaren arabera, alkatetzaren dekretuz desafekzio espedientearen jendaurrean jartzea, hilabete bateko epean. Iragarkia G.A.O.-n eta iragarki taulan jarriko da.
- Ondoren, udalbatza plenoak, gehiengo absolutuz onetsi beharko du espedientearen.
- Behin ondasuna desafektatuta, eta txostenean zehar aipaturiko baldintzak behin beteta, dagokion batzordeak diktaminaturik, udalbatza plenoak onartu beharko du permuta (apirilaren 2ko 7/1985 legearen 22.art).



Usurbilgo Udala

- Ondasunen balorazioak aurrekontuko errekurtsio arrunten %20-a gaindituko balu, udalbatza plenoaren gehiengo absolutua beharko litzateke.
- Bestetik, kopuru horren % 25-a gaindituko balu, foru aldundiaren baimena beharko litzateke.

Gogoratu behar da bestalde, apirilaren 18ko 781/1986 Errege-dekretu Legegilearen 54.1.b) artikulua, idazkariaren txostena eskatzen duela berariaz, erabakia gehiengo absolutuz hartu behar denean, eta hori betez, idazkari honek aurkezten du txosten hau.

Hauxe da sinatzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritziren kalterik gabe.

Usurbilen, 2020ko uztailaren 15ean
Udal idazkariak
Sin. Irantzu Arrizabalaga Gainza

Beraz ezer baino lehen jabari publiko ondasunen desafekzioa burutu behar da Toki Entitateen Ondasunen gaineko Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege-dekretuko 8. artikulua araberera. Hala, udal idazkariak egindako txostena kontutan izanik Alkateak 2020ko uztailaren 17an, 538/2020 zenbakidun dekretuaren bidez zera erabaki zuen:

LEHENDABIZI: Usurbilgo Herri-bideen inbentarioko 03. Egioleta herri-bidetik 132,43 m²-ko lur zatia desafektatzeko espedientea hastea, espedientearen agertzen diren planoetan jasotzen den moduan JON ARGOTE BENGOTXEA jaunaren lur zati batekin permuta burutu eta herri-bidea lekuz aldatu ahal izateko.

BIGARRENA: Desafekzio espedientea hilabeteko epean jendaurrean jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita. Iragarkia Usurbilgo Udaleko iragarki oholean ere jarriko da.

Emandako ebazpenaren arabera, espedientea jendaurrean jarri zen hilabeteko epealdian dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz (GAO, 145. alea, 2020ko abuztuaren 3a) eta udaletxeko iragarki oholean txertatuz.


Espedientea jendaurrean egon den bitartean ez da inolako alegazio edo iradokizunik aurkeztu.

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, burutu nahi den lur trukaketa aztertu eta ondoko txostena eman zuen 2020ko irailaren 11ean:

UA2020_00_03

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkateari
BALORAZIOA
EGIOLETA BIDEAN PERMUTARAKO AZALERA BALORAZIO TEKNIKOAREN
TXOSTENA

KOKAPENA; Egioleta bidea, Egiluze Haundi baserriaren lursailetan, Usurbil



Usurbilgo Udala

ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.06/2019-0483

AURREKARIAK

- 2019ko irailaren 26an Jon Argote Bengoetxea jaunak eskaera egin zuen, Egiluze Haundi baserriaren aurreko herri bidea bikokatzeko.
- 2020ko uztailaren 1ean Ingurumen Teknikariak ALDEKO txostena eman zuen, besteren artean honakoa esanaz; *“Egiluze Haundi baserri aurrean, 132,43 m²-ko herri bidea desafektatu eta 155,23 m²-ko herri bide berriarengatik permutatzeko ALDEKO txostena igortzea proposatzen dut. (...) Era berean, behin desfakzioa eta permuta gauzatutakoan, interesatuak egin beharreko obra egiteko ALDEKO txostena igortzea proposatzen dut 5.458 euroko aurrekontuarekin”.*
- 2020ko uztailaren 15ean Udal Idazkariak txostena eman zuen, besteren artean honakoa esanaz: *“(…) **ondasunen balorazio teknikoa egin beharko da, toki entitateen ondasunen erregelamenduko 112,2 art.-k ezarritako baldintzak betetzen direla ziurtatze aldera”.***
- 2020ko irailean Ingurumen teknikariak permuta egin nahi den lursailaren balorazio teknikoa eskatu dio udal arkitektoari.

TXOSTENA

Txosten honen helburua Egioleta bidean egin nahi den permutarako lursailen balorazioa egitea da, udal idazkariak bere txostenean finaktzen duenari erantzunaz. Hain zuzen bertan esaten dena da ondasunen balorazioa egin beharko dela, toki entitateen ondasunen erregelamenduko 112.2. art ezarritako baldintzak betetzen direla ziurtatzeko.

Toki Entitateen Ondasunen erreglamenduko 112.2.art.ak honela dio: *“No será necesaria la subasta en los casos de enajenación mediante permuta con otros bienes de carácter inmobiliario, previo expediente que acredite la necesidad de efectuarla y que la diferencia del valor entre los bienes que se trate de permutar no sea superior al 40% del que tenga mayor”.*

Hala, Ingurumen teknikariak bere txostenean esan bezala, egungo 132,43 m²-ko herri bide azalera, 155,23 m²-ko herri bide berriarengatik permutatu nahi da, haien kokapena beheko planoan ikus daitekeelarik:



Usurbilgo Udala

Lursaila	Azalera (m ²)	Vs (€)	Urbanizazio lanen kostua (€)	Balioa guztira (€)	Balio handienarekiko desberdintzuna (%)
Gaur egungo bidea	132,43	11.918,7	0	11.918,7	38,6
Trukean eman nahi den bidea*	155,23	13.970	5.458	19.428,7	0

*jabego osoan eta karga zein zortasunik gabe ematen dela kontsideratuz.

Ondorioz, **proposatzen den permuta bideragarria da balorazio teknikoari dagokionean, trukatu nahi diren bi ondasunen balio ezberdintasunak (urbanizazio lanen kostua, onartutakoa, aintzat hartuta) Toki Entitateen Ondasunen Erregelamenduko 112.2. art ezarritako baldintza betetzen duelako, hau da, balio handienarekiko balio txikienaren desberdintasunak ez duelako lehenengoaren %40a gainditzen, %38,6a izanik.**

Ohartarazten da balorazio hau trukean eman nahi den lur azalera jabetza osoan eta karga zein zortasunik gabe ematen dela kontsideratuz egin dela. Hala ez balitz, balorazioa beste bat litzateke.

Edonola, ziurtatu beharko da trukean eman nahi den azaleraren egoera zehatza (karga zein zortasunei dagokionean) eta baita jabegoa ere, horretarako 15 EGUNEKO epean interesatuak lursailaren Jabeko Erregistroko nota simplea aurkeztu beharko duelarik.


Hauxe da sinatzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien baten kalterik gabe.

Usurbilen, 2020ko irailaren 11ean
UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune

2020ko irailaren 15ean, JON ARGOTE BENGOTXEA jaunak, Jabego Erregistroko nota simplea aurkeztu du udal arkitektoak eskatutako eran. **Jabetza Erregistroko ziurtagirian honela jasotzen da:**

Municipio: USURBIL
Finca: 405
CRU: 20010000175275

Descripción de la finca: Rústica.- Casería llamada Eguiluce-Aundi, con sus pertenecidos, finca rustica radicante en jurisdicción de la villa de Usúrbil, señalada con el número veinte. Consta la casa de planta baja, principal y desván. Ocupa: doscientos sesenta metros de terreno solar y otros ciento veinte metros la antepuerta, y confinan casa y antepuerta por todas partes con sus pertenecidos que consisten en cuatrocientas catorce áreas y veintidós centiáreas de terreno argomal y arbolado de robles situado al norte y Este de la casa, en el punto llamado Eguiluce-aldea; quinientas cuatro áreas y noventa centiáreas de terrenos labrados, herbales y manzanales, situados al Sur de la casa; y ciento setenta y un áreas cincuenta centiáreas de terreno argomal y arbolado contiguo al anterior. Confina la totalidad de esta finca que forma un solo cuerpo por Norte con pertenecidos de Don Jose Joaquin Aizpurua y de la casa Arratzain, por Sur, con pertenecidos de Don Francisco



Usurbilgo Udala

Calparsoro y herederos de Don Francisco Maiz, por Este, con pertenecidos de Don Jose Joaquin Aizpurua y de la Caseria Eguiluce-chiqui, y por Oeste, con pertenecidos de la Caseria Olarreaga.

Titularidad: JON ARGOTE BENGOCHEA, 100% del PLENO DOMINIO

Titulo: Herencia

Inscripción: Folio 1 del tomo 1830, libro 232, inscripción/anotación 14.

Ingurumen eta nekazaritza udal teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, ontzat eman du JON ARGOTE BENGOCHEA jaunak aurkeztutako dokumentazioa.

Udal arkitektoaren txostenaren arabera, permutatu nahi diren bi lursailen balioen arteko diferentzia ez du % 40a gainditzen. Beraz, permuta gauzatu daiteke.

Guzti hau kontutan izanik, Nekazaritza eta Ingurumena Batzordeak, 2021eko otsailaren 17an egindako bilkuran, Joxe Mari Iribar, Oxkar Santamaria, Carlos Perez eta Patxi Suárezen aldeko botoekin, aho batez, egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA


LEHENDABIZI: Usurbilgo Herri-bideen inbentarioko 03. Egioleta herri-bidetik 132,43 m²-ko lur zatia desafektatzea espedientean agertzen diren planoetan jasotzen den moduan.

BIGARRENA: Herri-bidea lekuz aldatzeko, Usurbilgo Herri-bideen inbentarioko 03. Egioleta herri-bideko 132,43 m²-ko lur zatia, JON ARGOTE BENGOCHEA jaunaren jabetzako 155,23 m²-ko beste lur zati batengatik permutatzea ondoko baldintzekin:

- Udalak eskuratuko duen 155,23 m²-ko lur zatia erabilera publikoari atxikiko zaio, udal jabari publikoko ondasun izendatuz; eta 03. Egioleta herri-bidearen zati bihurtuz.
- Usurbilgo Herri bideen Inbentarioa eguneratuko da, bertan 03. Egioleta herri-bidean izandako aldaketa hau jasoz.
- JON ARGOTE BENGOCHEA jaunak jaso duen 132,43 m² lur zatia, Egiluzeaundi baserriko onibarrari agregatuko zaio.
- Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko urriaren 9an, Kalezarko Egiluzeaundi baserria (Kalezar 78) eraberritzeko emandako udal baimenaren baitan egin beharreko obra berriko deklarazioan, permuta hau espresuki jasoko da; hala nola 5. poligonoko 17. partzelatik pasatzen den 03. Egioleta herri-bidearen planoan.

HIRUGARRENA: Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

LAUGARRENA: Alkateari ahalmena ematea, hartutako erabakia gauzatzeko, Udalaren ordezkartzan beharrezko dokumentua izenpetu ditzan.



Usurbilgo Udala

BOSGARRENA: Erabaki hau JON ARGOTE BENGOETXE Ari jakinaraztea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Carlos Pérez Fraisolí, Andoni Atxega San Sebastian eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

8.- ADIERAZPENA: MARTXOAK 8. ZAINZA BERDINTASUNEAN. EMAKUMEEN EGITEKOA PANDEMIAN ETA ZAINZAREN KRISI GLOBALEAN.

Itziar Basterrikak mozioa irakurri du.

Jarraian, alkateak bi kontu aipatu ditu. Batetik, Pelaioneako parte-hartze prozesua abiatu zutela duela hilabete batzuk eta etorkizuneko Pelaioneak bi proiektu barne-hartuko dituela esan du, batetik, kalezarrentzako auzo-ekipamendua eta, bestetik, emakumeen etxea. Bi prozesuak elkar-gurutzatuz asteartean amaitu zutela esan du prozesua eta prozesu hauen emaitzak martxoaren 6an egingo den batzarrean kaleratuko dituztela aipatu du. Gainerako zinegotziei batzar honetarako gonbidapena luzatu die.


Bestetik, mozio honetan udalei eskatzen zaie zaintza antolatzeko ereduari buruzko ausnarketa abiatzea eta dakiten bezala, Aste Santuen ostean zaintza ereduari buruzko parte-hartze prozesu bat abiatzera doazela jakinarazi du. Beren buruari bi galdera egiten dizkiotela esan du, Usurbilen nola zainduak izan nahi dugun eta nola zaindu nahi dugun. Bi galdera horiei erantzuteko parte-hartze prozesua izango dela gaineratu du eta apirilaren 21a izango dela dio guzti hau plazaratuko duten eguna.

2021eko otsailaren 16an izandako Antolakuntza batzordean aho batez adostu zuten mozioa batzarkideek aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“ZAINZA BERDINTASUNEAN. Emakumeen egitekoa Pandemian eta zaintzaren Krisi Globalean

Dimentsio askoko krisi sistemikoan gaude, zeina gurutzatu eta erlazionatu egiten baita aurretik zeuden beste krisi batzuekin; esaterako, ekologikoa eta zaintza-arlokoa. Pandemiak agerian utzi ditu mugimendu feminista eta emakumeen kolektiboak egiten ari ziren zenbait aldarrikapen: giza bizitza zaurgarria da, eta giza ingurunearen, ingurumenaren eta ingurune komunitarioaren zeharo mendekoa. Ezerk ez du garrantzi handiagoa izan behar bizitza zainzteak baino, pandemia dela-eta muturreraino prekario bihurtu eta ahuldu den bizitza.

Gaur, martxoak 8, Emakumeen nazioarteko egunean, pandemiak eta haren kudeaketak baldintzatutako urte honetan, aintzat hartu beharra dago emakumeek pandemia eta beraren



Usurbilgo Udala

ondorioak borrokatzeko mundu osoan egindako ekarpena. Zaintzaren ardua emakumeei egokitu zaie, bai zerbitzu publikoetan (osasungintza, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, merkataritza eta elikadura...) bai etxean barruan, eta batez ere haiek eraman dute krisi sanitario eta sozial honetan funtsezkoak izan diren zerbitzu askoren zama. Emakumeen artean ere banaketa desorekatua da, klase sozialaren, arrazializazioaren eta migrazio-estatusaren arabera. Gainera, kasurik gehienetan egoera prekarioan egindako lanak dira.

Berdintasunik gabeko banaketa horrek, gainkargaz gain, eta hark emakumeen osasunari eta bizi-kalitateari dakartzkien ondorioez gain, zaintza-sistemaren prekaritatea ere azaleratu du, eta lehendik ere bazeuden desberdintasunak areagotu ditu. Gure gizarte-ereduak familiarren, eta, neurritz kanpoko proportzioan, emakumeen esku uzten ditu zaintza gehienak, bai ordainpekoak bai ordaingabeak; oso gutxi ematen dira eremu publikoan. Bestalde, egoera eta estatus okerreko emakumeek (guraso bakarreko familien buruak, behartsuenak, kolektibo zaurgarrietakoak, indarkeria matxistaren biktimak...) neurri handiagoan jasaten dituzte zaintza-zamaren ondorio negatiboak.

Ondorioz, gizarteak bere aitortpena adierazteko moduak konpromiso irmoa izan behar du, berdintasunik gabeko banaketa bidegabe horri euskarria ematen dioten genero-arrakalak borrokatzeko konpromisoa. Desberdintasun horiek agerikoak dira emakumeek funtsezko zerbitzuetan egiten duten lanaren baldintzen prekaritateari begiratuz gero. Bada garaia zaintza-lan guztiei dagokien balioa emateko, eta aurrera egiteko erantzunkidetasun handiagoko eredu baterantz, pertsona guztientzat ekitate eta ongizate handiagoa sortzeko.

Udalak gaude lehen lerroan, pandemiari eta hark pertsonengan dituen ondorioei aurre egiten, eta liderrak izan behar dugu zaintzari eta haren hornikuntzari buruzko politika publikoak bultzatzeko orduan, erantzunkidetasun publikotik abiatuta, eta arreta emanaz gizon eta emakumeen baldintza eta inpaktu desberdinei.

Erakundeok koordinatuta egoten jarraitu behar dugu, eta bideak zabaldu behar ditugu herritarrek, eta bereziki mota askotako emakumeen kolektiboek eta mugimendu feministak, benetan eta modu eraginkorrean parte har dezaten erabaki publikoetan.

Horregatik guztiagatik, Udal honek, bere eskumenen esparruaren barruan, honako konpromisoak hartzen ditu:

- Gizartean zaintza antolatzeko **ereduari buruzko eztabaida** bultzatzea eta eztabaida horretan buru izatea, bizitza erdigunean jartzean oinarritzen den ikuspuntu feminista batetik abiatuta, zaintzaren erantzunkidetasun sozial eta komunitarioranzko bidean.
- **Analisia** egitea, genero-ikuspuntutik, kolektibo zaurgarrienen egoerari eta beharrezanezi buruz, baita COVID-19aren ondorioei buruz ere, eta horiei aurre egiteko premiazko **neurriak martxan jartzea**.
- COVIDaren krisiaren eragina arintzeko onartzen diren neurri guztietan genero-ikuspuntua gehitzen dela bermatzea, **laguntzez eta babes-programez** den bezainbatean.
- Konponbide bideragarriak aztertzea eta ezartzea **adingabekoen eta mendekotasuna dutenen zaintzari laguntzeko** tokiko zerbitzuentzat, zaintza baldintza duin eta bidezkoetan egin dadin saiatuz edo/eta erraztuz, bai ematen duenarentzat bai jasotzen duenarentzat ere.



Usurbilgo Udala

- **Udalen Berdintasun-plangintzetan**, espresuki azpimarratzea emakumeen ahalduntzea, zaintzaren balioa, eta hari dagokionez gizonek duten **erantzunkidetasuna**.
- Berdintasuneko tokiko politikak garatzeko eta generoa tokiko politika guztietan zehar-lerroa izateko erabiltzen diren **giza baliabideak eta baliabide tekniko eta ekonomikoak** sendotzea eta babestea.
- Tokiko **zaintza-sare komunitarioei** babesia ematea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Carlos Pérez Fraisolli, Andoni Atxega San Sebastian eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

9.- MOZIOA: HAUR-MINBIZIAREN NAZIOARTEKO EGUNA.

Mozioa batzorde batek diktaminatu gabe datorrenez, hasteko, batzarkideek aho batez mozioa tratatzea onartu dute.

Jarraian, Patxi Suárezek mozioa irakurri du.

Batzarkideek, mozioa aho batez onartu dute, honela dio:

“Haur-Minbiziaren Nazioarteko Eguna

Aurten Haurren Minbiziaren Nazioarteko Eguna otsailaren 15ean ospatu zen; gaixotasunari buruz kontzientzia sortzea eta minbizia pairatzen duten haurrak eta nerabeak bermatzea du helburu.

Minbizia haur eta nerabeen heriotza-kausa nagusietako bat da, eta urte guztietan 400.000 haur baino gehiago diagnostikatzen dituzte minbiziarekin mundu osoan, Osasunaren Mundu Erakundearen arabera; estatu osoan 1.400, EAEan 100-150 eta Gipuzkoan 25-30 kasu berri detektatzen dituzte.

Nerabe eta haur gehienak minbiziarekin diru-sarrera txiki eta ertaineko herrialdeetan bizi dira; ondorioz, goiz antzemate, diagnostiko, tratamendu eta zaintza aringarritarako arazo eta desberdintasun onartezinak jasan behar dituzte. 2018ko irailean, OMEk haur-minbiziaren aurkako mundu-ekimena abiarazi zuen, desberdintasun larri horiek murrizteko asmoz. Helburua 2030erako minbizia duten haurren %60 gutxienez bizirik irautea eta guztien sufrimendua murriztea da.

Nahiz eta haur eta nerabeen %80k herrialde garatuetan bizirautea lortzen duten, ikerketek frogatzen dute 2 heren tratamenduaren albo-ondorioak pairatzen dituztela 5 urte



Usurbilgo Udala

edo gehiago igaro ondoren; gainera, bizirauten diren laurdena haren osasun eta bizitzarako ondorio larriak tratamenduarengatik izango dituzte.

Gaur egun, egoera are eta larriagoa da; izan ere, COVIDagatik mundu kaltetu batean bizi gara, eta bai goiz diagnostikoan bai tratamenduetan bai zaintzan eragin negatiboa du.

Hori guztia dela eta, hurrengo mozioa aurkezten da:

- Munduko Egun honen helburua, hain zuzen ere, kontzientziatzea denez, Eusko Jaurlaritzari eta Espainaren gobernuari tresna gehiago eta hobeak (laguntza psikologikoa) eskatzen dizkiegu kaltetutako haur eta nerabestarako, minbiziaren inpaktu emozional, psikologiko eta fisikoa arintzeko eta pazienteei nahiz haien senideei prozesuaren une guztietan laguntza errazteko, diagnostikotik hasiz eta zainketa aringarri unibertsal eta integraletaraino, bai ospitaleetan, bai etxeetan.
- Udalak konpromisoa hartzen du Osasun Publikoko eragileekin lankidetzan aritzeko bizimodu osasungarria sustatzen duten prebentzio-estrategietan, eta estrategia horiek tokiko politika instituzionalean sustatzeko.
- Udala prest dago sentsibilizazio-laguntza-programak garatzen laguntzeko, Eusko Jaurlaritzak eta minbizia duten gaixo eta senideekin lan egiten duten erakunde eta elkarteek egiten dituztenak.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Carlos Pérez Fraisoli, Andoni Atxega San Sebastian eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

10.- GALDERA-ESKAERAK.

Ez da galdera edo eskaerarik egin.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:56etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.